

# ZAINZA SAREEI ZUZENDUTAKO

## **EROSKETA PROTOKOLOA**

#EuskalHerriaZaintzaHerria



euskal herriko  
**eskubide  
sozialen  
karta** | carta de  
los derechos  
sociales

# ZAINTZA SAREEI ZUZENDUTAKO

## EROSKETA PROTOKOLOA



### BOLONDRES GUZTIEK BETE BEHARREKO BALDINTZA

- Bolondresak ezin izango du inongo sintomarik izan. Covid-19 duen edo Covid-19 duen norbaitekin kontaktuan izanagatik berrogeialdian dagoen inorekin ere kontakturik ezin izan dute eduki. Arrisku taldekoa den inor ere ezin izango da bolondresa izan.

### HARREMANA

- Laguntza behar dutenak koordinatzailearekin kontaktuan jarriko dira (Telefonoa/emaila zehazteke) eta zer behar duen eta beste hainbat datu jasoko ditu. Amaitzeko, koordinatzaileak boluntario baten deia jasoko duela adieraziko dio.
- Bolondresak laguntza behar duenari deitu eta laguntza eskainiko dio edozein erosketa egiteko baita farmaziatik behar duena ekartzeko ere. Bolondresarekin zehaztuko du behar duena.
  - *“Egun on, \_ naiz. Zer moduz zaude? Ni izango naiz erosketa egitearen arduraduna. Nahi baduzu aurrena ordainketaren kontuak komentatu ditzakegu. Erosketa egiterakoan nik ordainduko dut eta ondoren erosketa zuri ematean zuk efektiboan emango didazu dirua, nahi izanez gero Bizuma ere erabili dezakegu. Ez dizugu gastatutakoa baino gehiago kobratuko. Eta bueno, zalantzarik edo bazenu esan lasai. (...) Bueno, eta erosketari dagokionez, zer da behar duzuna? (...) Ados, ba erosketa egingo dut eta abisatuko dizut telefonoz noiz eramango dugun etxera.”*
- Bolondresa auzo berekoa izaten saiatuko gara eta beti bolondres berak egingo ditu etxe horretako erosketak.

### EROSKETA

- Bolondresak eskuak garbituko ditu ura eta xaboiarekin erosketa egitera joan aurretik eta banaketa bukatu ondoren.
- Bolondresak erosketa eta banaketa egiteko eskularruak jantziko ditu.



- Bolondresak momentu oro 1,5m distantzia mantenduko du edonorekin eta beharrezkoa ez den ezer ez ikutzen saiatuko da. Aurpegia ere ez du ukituko.
- Bolondresak txartelarekin ordainduko du. Beharrak dituen pertsonak esku diruz ordainduko digu, baina dirua manipulatu aurretik eskuak garbituko ditu. Bolondresak eskularrekin hartuko du dirua eta desinfektatu alkoholaren bidez. Beharrak dituen pertsonak izango balu, Bizum-a erabiltzea izango litzateke beste aukera.
- Laguntza behar duenaren etxe azpira iritsitakoan bolondresak telefonoz deituko dio eta erosketaren kostua adieraziko dio.
  - *“Kaixo, \_\_ naiz, zure erosketa entregatzera nator. Ondo iruditzen bazaizu atariko atea zabaldu eta gora igoko dizut, zuk dirua ate aurrean utzi eta atea itxi. Nik poltsak eta kanbioak bertan utziko dizkizut. \_\_€ kostatu da.”*
- Erosketa ate aurrean utzi, ahalik eta kontaktu gutxien izateko. Tiketa gorde eta erosketekin batera entregatu.
- Dirua jaso eta ukondoarekin txirrina joko zaio bertan utzi direla jakin dezan eta berarekin kontaktua ekiditeko atea zabaldu baino lehen joango da.